

ESAN LUZEAK

- Ania! Xaxarko nun da?
- Txotza biltzen.
- Txotxa zertarako?
- Sua egiteko.
- Sua zertarako?
- Amona berotzeko.
- Amona zertarako?
- Ollolari jan emateko.
- Olloa zertarako?
- Arrautzak egiteko.
- Arrautza zertarako?
- Apaizari emateko.
- Apaiza zertarako?
- Meza emateko.
- Meza zertarako?
- Zu ta ni ta danak salbatzeko.

Lengoan, ume nintzaneakoak gogora ekartzeko, adiskide batek Andoain'dik *Esan Luze* orixe biali dit. Arek neri igarri, emen gaztetxo nintzala ikusten nituenak ez zitzaizkidala begien aurrean azalduko.

Ikastetxera nexka eta mutil ttiki asko biltzen zaizkigu eta geinetan, ikastekoetatik irteten diranean txilioka izaten ditut:

gorde-gordeka, gu ibiltzen ginanean bezela ibiltzen dira. Nexkak *kurkuluxetan* maiz ikusten ditut: ordea, erositako zertxoak darabizte, ez nere arrebak bezela arkumearen ezur-puxkak: orduan aiek onelatsu esaten zuten: bat kurkulux, bi kurkulux... (Zenbait aidiz kurkulux ori esaten zuten ez naiz gogoratzen). Kurkulux itzarena bukatzean, *bat naretan*, *binaretan* esanez ibiltzen ziran. Ortik aurrerakorik orain nik ez gogoan. Mutikoak beste jolasa ba-dute: gudua ba'lute bezela, eta Itsaso'koak ezootan ibiltzen ziranean bezela, iduritzen zait. Bai ta ere soka-saltoan ibiltzen dira, bafian ortarako gu bafio askoz motelagoak dira.

Asierako Xaxarko'renari *Esan Luzc* deitzen diot, eta amoker nabilienik ez zait iduritzen. Arestian Andoain'dik bialididaten ori emen azaltzea inori ez bekio arrigarri. Umetan zenbait aldiz esaten ote-genduen... Ala ere, nerekin batean saillean ginanok *Esan Luze* ori aldatuxe generabilkian. Emen ipini dedana garai aietan eta geroxeago ere Andoain'go *Etxeberrieta'n* esaten zuten. Oraindik ere bai-ote? Jakitea pozkarri litzaidake. *Etxeberrieta'k* beste izen au ere ba-du: *Larramendi* kalea, eta Axindegi etxetik Txitibar'eranoko bitartean degu: sorbaldan burnibidea: gora eta bera ibili al izateko eragozpen aundi. Aurrean ORIA izeneko ibaia.

Axarko egokiago litzaken Xaxarko? ipuia eta geiago ere entzun oi genituen: isillean esaten zizkiguten. Oraifiago, guretzat izkutuan erabiltzeko genituenak, aldizkarietan sartzen asi zaizkigu. Ezik goi-mallako euskal-urtekari oriek euskal gaztediak ez dituela irakurriko.

Noskiago, Zumea eta Buruntza-aldean eta Urnieta'ko Goiburu aldean, orduan ere aldaketak izango zituzten.

Xazarkoren au Orixe zanak Jesus'en Biotza'ren Deia'n atera zigun, asierako zenbakietako batean.

Nere saillekoak esaten genduen Berastegi'tik zetorrena zala uste det: atari-atarian beste umerik ez genduen. Nere iaioletxeko beste bizitzan (etxekonean) iru alaba zituzten eta gu bafio aziagoak. Ostape'ra sendi berria nere gogoanean etorri zan eta ango gaztetxoekin inoizka biltzen ginan. Amona zana

Berastegi tik etorria, eta aita zana Alzaga'tik. Gure amak zekizkianak, asko beintzat bere arnari entzunak zituzkean.

Beste esan luzea auxe genduan:

Onek et'onek et'onek et'onek,
Bart eztaiak zituzten:
Onek oni zer esan,
Konbiatzeko au ta au
Konbiatzaleak au ta au:
Oitxek dituk oitalau.

Beatzak zenbatuz ogeita lau ederki osatzen genituen. Ge-roagoko batean esan orri luzagarria norbaitek erantsi nai izan:

Maiera guztiak bildu zirala,
Salda begiduna bero:
Olartzar erreak amabi,
Arkume-bildots geiegi,
Edariz mistela ori...
Erdiak moskor erori!!!

Bitartean bazkaldar batek au berritu:

Ala kinkurrinera,
Ala xamurrera:
Mari Allurraldeko
Jirari beste aldera.

Allurralde'ko Mari au, Ernialde'tik asi eta Aia'ko Arrira-fioko sakan-tarte ortako miraberik bikanena omen zan: egokia, alaia, begi-urdir prantses zirudiena.

Onera asieran ekarri dedan. Esan Luze'aren antzekoak geiagO' ere badira, agian: Azkue aundiaren lanetan ere aurki litezke. Bizkaitarren *Lenengotxu ori* ere sail ontantxe sartze-koa degu.

Emen, ama zanari ainbestetan entzun niona iarriko det:

Bolon bat,
eta bolon bi:
Bolon urera erori.
Etzan geroztik egarri.

Bolon-bolon-bolona:
Gure aurra, aur ona.
Bolon, bolon,
Bolon, bolon...
Bolon-bolon-bolona.

Gure aurraren,
Aur ona:
Balio luke Baiona:
Baiona diruekin bano,
Naiago guk
Gure aur ona...
Bolon-bolon,
Bolon-bolon
Bolon-bolon-bolona...

Eguzkialde auetan nabillela, zenbait aldiz abestu izan ote det! Noski: neretzat bakarrik. Izan ere Nippon-txinatarren zortzi urteko gudu luzean, batera eta bestera beti onez ibili bear nuenean, beste zerk zemaidaken luzaroko alaitasuna?

Etxeberria'tar P., s.j.
Ili-tto: 1982.XII.2